



2018KO APIRILAREN 12KO UDALAREN OSOKO BILKURAK ZUIAKO UDALAREN 2018RAKO ARAUGINTZA PLANA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak urtez urte egin beharreko arau-plangintza bat jaso eta honako hau xedatzen du:

“1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege-edo erregelamendu-ekimenak.

2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian.”

Udalaren Osoko Bilkurak 2018ko apirilaren 12an bileran 2018ko araugintza-plana onartzea erabaki zuen eta horrek honako hauek barne hartzen ditu:

- Gizarte Ongizate arloa: Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren emate-prozedura arautzen duen Ordenantza berria.

- Ingurune Nagural-Ingurumen-Mendi arloa: Gorbeia mendiko bazkalekuak arautzen dituen Ordenantza berria.